



# GORPUTZ ATALAK: OINARRIZKO HEZUR ETA GIHARRAK

## GIZA HEZURDURA




## GIHARRAK

### AURRETIK IKUSITA



### ATZETIK IKUSITA



1 DELTOIDEA	12 KANPOKO KOADRIZEPSA HANDIA	23 DELTOIDEA, AURREKO BALA
2 BIZEPSA	13 TARTEKO KOADRIZEPS HANDIA	24 KORAKOBRAKIALA
3 PRONATZAILE BIRIBILA	14 BARRUKO KOADRIZEPSA HANDIA	25 AURREKO ZERRADUN MUSKULUA
4 PALMARTXIKIA	15 AURREKO TIBIA MUSKULUA	26 ABDOMINALAK
5 AZALEKO TOLESTAILEA	16 ALBOKO PERONEO LUZEA	27 ABDOMINAL ZEIHARRA
6 PALMAR HANDIA	17 OINETAKO HEDATZAILE LUZEA	28 PSOASA
7 AURREKO MUSKULU KUBITALA	18 BEHATZ LODIAREN HEDATZAILEA	29 PEKTINEOA
8 TOLESTAILE SAKONA	19 ALBOKO PERONEO LABURRA	30 ADUKTORE LUZEA
9 TOLESTAILE LUZEA	20 ESTERNOKLEIDOMASTOIDEA	31 ADUKTORE HANDIA
10 SARTORIOA	21 BULARREKO TXIKIA	32 BARRUKO BIKIA
11 AURREKO KOADRIZEPS ZUZENA	22 BULARREKO HANDIA	33 KANPOKO BIKIA

1 TRAPEZIOA	10 1. eta 2. ERRADIALAK	18 ERDIMINTZEZKO
2 DELTOIDEA ERDIKO ATALA	11 ATZAMARRAREN HEDATZAILEA	19 DORTSALA
3 DELTOIDEA ATZEKO BALA	12 5. ATZAMARRAREN HEDATZAILEA	20 IPURMASAILEKO MUSKULU (GLUTEO) ERTAINA
4 ERRONBOIDEA	13 ATZEKO KUBITALA	21 FASZIA LATAREN TEINKATZAILEA
5 TRIZEPS LUZEA	14 ADUKTORE HANDIA	22 IPURMASAILEKO MUSKULU (GLUTEO) HANDIA
6 KANPOKO TRIZEPSA	15 ERDIZURDAZKOA	23 BIKIAK
7 BARRUKO TRIZEPSA	16 BIZEPS FEMORALA	24 SOLEOA
8 SUPINATZAILE LUZEA	17 BIZEPS FEMORALA, ATAL LABURRA	
9 ANKONEOA		

- Gizakia, hezurdurari eta muskuluei esker, gai da zutik mantentzeko eta mugimendu desberdinak egiteko: ibili, salto eta korrika egin...
- Hezurrek sendotasuna emateaz gain gorputza eusten dute. Gainera, eskeletoak organo delikatuak babesten ditu, besteak beste, bihotza, birrikak eta bizkarrezurmuina.
- Muskuluak eta hezurrak lotuta daude. Muskuluak, luzatuz eta uzkuratuz, hezurren higadura sortzen dute.
- Garunak hezur, muskulu eta zentzumenen aginduak gidatzeko balio du.
- Gizakiaren gorputzean hiru zati nagusi bereizten dira: burua, enborra eta soin-adarrak.
  - Buruko hezurrak eta muskuluak: Garezurak burmuina babesten du eta hezur bakarra dirudien arren, tinko lotuta dauden hezur ugariz osaturik dago. Masailak, begiak, bekainak, sudurra edo belarriak mugitzean, muskuluak mugitzen dira, eta ez hezurrak. Lepoan ditugun muskuluei esker, berriz, burua gora, behera, ezkerretara... mugi dezakegu. Buruko hezur guztietatik masailazurra da mugikorra den bakarra.
  - Enborreko eta soin-adarreko hezurrak: Bizkarrezurra gorputzaren ardatza da. Gorputzeko gainerako hezur gehienak bizkarrezurrari loturik daude. Bizkarrezurra 33 ornoz osaturik dago. Hezur horien arteko artikulazioa ez da finkoa, erdi-mugikorra baizik. Horri esker, gorputza tente eduki dezakegu, eta makurtu edo okertu ere egin gaitzke. Soin-adarrak, zangoak eta besoak, gorputzeko atalik mugikorrenak dira eta enborrari lotuta daude.